

# begoñazpi

aldizkaria

## AGIRIKO HEZKUNTZA

# ETORRI GURERA

Familiok zabalik dozuez Ikastolako  
ateak, ikusgai dozuez ikasleek  
eginiko lanak!



**BARRI GEHIAGO**

# Etorri gurera, orain arte ikasitako guztia erakusteko jardunaldia

Gure ikasleek benetan be, bidaia zoragarria prestatu dabe. Hori dala eta, familiek mundu ezbardinetan murgiltzeko aukera izan dabe.

Etorri Gurera Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara egiten diran proiektuen aurkezpena da. Egun berezi-berezia izaten da, ikasleek familiei hiruhileko honetan egindako lan guztia erakusteko modua da eta. Egun honetan, ikasleak doguz protagonista nagusi!



INFO GEHIAGO | MÁS INFO



ESKUTIK

## Familiენტzat eskuragarri dagoan eduki barria



### Begoñazpi Ikastolak bere kilometroa dau Korrikan

Begoñazpi Ikastolak Korrikaren 24. edizioan parte hartuko dau. Ikastolak erositako kilometroa, 3.400 kilometroa, gitxi gorabehera 10:43an helduko da Ornilla Doktorea kalera martiaren 29an. Animatu gugaz parte hartzera!

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



### Zientziaren bidez, Artea sortuz!

DBH 1. mailako ikasleak, Zientzia sailak antolatutako Bioarte tailerren ibili jakuz. Biologia ikasgaiaren landareen erreinua lantzen dagozala, tailerren, ikasleek lorak diseinatu dabez. Loreen atal honeekin, Biologia eta Artea uztartuz eta sormen handiz, collageak egin dabez.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



### Spelling Bee: letreiatze lehiaketa

Begoñazpi Ikastolako ikasleek oraintsu parte hartu dabe Spelling Bee lehiaketa bitan eta oso emaitza onak lortu dabezala azpimarratu behar dogu. Emaitzok ikasleen ahalegina, dedikazioa eta ingeles-maila ona islatu dabe, baita Ikastolak hizkuntzak irakasteko dauan konpromisoa be.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO